

ON KAYETANO SANCHEZ, EUSKERA ZALEARI.

Maiz ditut zure zenbait
gauza irakurtzen,
diralako irakur-
garriyak agertzen;
ez dezu pazienzi
guchi guchi artzen,
orren kantu pollitak
burura ekartzen,
eta maiz paperean
guri azaldutzen.

Biotz osoz euskeraz
mintzatzen baitzera,
izen-gain¹ erdaldunez
euskalduna zera;
maita zazu, bai, maita
ama on euskera,
au galtzez gu obeki
izango ezgera,
esan beldurrik gabe
euskaldunak gera.

Ez damutu euskeraz
kantatzen ariya,
Jaunak deizula ontari
grazi ugariya,
ama euskera zarra
il danean iya
zera zu munduratzen
seme kantariya,
kantuz piskor zaiguzu
arnacho eriya.

RAMON ARTOLA.

(1) apellido.